

Itzaleko eskuak

1963an astekaria berrargitaratzen hasi zenetik hona ia 2.200 zenbaki kaleratu dira, eta beste mordo bat horien aurretik. Hitz asko behar izan dira horiek guztiak betetzeko, eta pertsona asko hitz horiek idazteko.

90 urtetan ehunka erredaktore eta kolaboratzailek idatzi dute ARGIA. Guztiak aipatzeko orrialde gehiago beharko genituzke, baina guztiei esker egin da bide luze eta gorabeheratsua.

Aldizkaria sortu zuten berberak izan ziren testuak idatzi eta sinatzen lehenak. Aita kaputxinoak, alegia. Eta kaputxinoak ez zirenak, ez zebiltzan urruti. Intza'r Damaso anaia, Donosti'ar Gabriel anaia, Ambrosio anaia, Legateko artzaia —ez ardiak zaintzen dituen, fededunak zaintzen dituen baizik— Goñi'tar Julian apaiza... 1934an, dantzara joateko aholkuak, esaterako,



“Mariaren alaba batek eta A.I.k” sinatu zituzten.

Astekari suspertuan, Zeruko ARGIA'tar belaunaldi bikaina hasi zen idazten: Kintana'tar Frantzisko Xabier, Andonegi'tar Ziriako, Bidani'tar Ladislao, Arregi'tar Rikardo, Ugalde'tar Martin, Oteitza'tar Gorka —artikulua itzuli zioten; izena

Ezkerrean, Aita Damaso Intzari egindako elkarrizketa. Sortzailearena izan zen Zeruko ARGIAren lehen sinadura, lehenengo zenbakietan berak idatzitako editorial erlijioso modukoek ematen baitzieten hasiera aldizkariari.

Izanaren itzala, ezizena

Artikuluak sinatzeko izengoitiak erabiltzea ez da gauza berria, ezta bertakoa ere. Gerra aurreko Zeruko ARGIA dagoeneko bateren bat topa daiteke, “Jautarkol” ezaguna (Luis Jauregi), esaterako.

Baina 60ko hamarkadako ibilbide berrian ezizenak ugaltu egin ziren. Moda kontua izango zen beharbada, edota frankismo garai-ko badaezpadako neurria. Amuntsa, Ezkibel, Yodabe, kakute Errialde edo Herrialde —haizeak nondik jotzen zuen—, Basajaun... Goitizen batzuk erreferente bihurtu ziren eta benetako izena baino ezagunagoak dira gaur egun, Luis Alberto Aranberriren “Amatiño”, adibidez. Beste batzuek errealismoaren kamuflajea aukeratu zuten ezizena aukeratzeko orduan, esaterako, Mari Karmen Garmendiak testuak



Jose Luis Alvarez Enparantza, “Txillardegia” goitizenez da ezaguna, baina “Larresoro” ezizena erabili zuen Zeruko ARGIAko artikuluetan.

“Miren Olarreaga” izen-abizenek sinatzen zituenean. Jokaldia errepi-katu zaleren bat ere bazen: “Txillardegia” Jose Luis Alvarez Enparantza dela jakina da, baina gutxi dakite Zeruko ARGIA idazten hasi zenean “Larresoro” ezizena erabiltzen zuela.

Ezizenak erabiltzeko ohitura pixkanaka apalduz joan zen, baina horrek ez du esan nahi erabat desagertu zenik. Duela urte batzuk, besteak beste, “Joxe Mollarri” sinadura azaltzen zer tarteka eta, aurrerago, “Lukas Martinez”; ARGIAko azken bi zuzendarien ezizenak, hurrenez hurren. Eta gaur egun ere bada ezizena erabiltzen duen ohiko kolaboratzaile bat. Baina horretarako arrazoiak izango ditu eta irakurleak asmatu beharko du zein den.



Goian, Jarrai antzerki taldearen emanaldi bat (Arantxa Gurmendi eta Ramon Saizarbitoria). Jarraiko kide askok idatzi zuten Zeruko ARGIAN 60ko hamarkadan, nagusiki "Gazte Naiz" sailean. Ezkerrean, aurtengo ARGIAko kolaboratzaileen sagardotegia.

zergatik ez?— Etxaniz'tar Nemesio, Saizarbitoria'tar Erramun... Azken horrek Jarrai antzerki taldean jarduten zuen, aktore lanetan, eta hainbat taldekide ekarri zituen astekariaren orrietara, nagusiki "Gazte naiz" atalera: Xabier Lete, Arantxa Gurmendi, Iñaki Beobide... Horietako batzuek, gainera, garbi adierazi nahi zuten nondik zetozen; Jarraiko Agirrek, esaterako.

Aktoreena baino harrobi are opa-roagoa idazleena izan da. Besteak beste, Laura Mintegik, Joseba Sarrionandiak, Koldo Izagirrek, Mariasun Landak, Itxaro Bordak, Anjel Lertxundik edo Bernardo Atxagak idatzi dute, batzuek beste batzuek baino maizago, hasi berri-tan batzuk, bide joria ibili ondoren besteek.


Bertsolariak ere ez dira falta astekarian idatzi dutenen zerrendan. Basarrik zabaldu zuen bidea, bere bordatxo lehengoz Zeruko ARGIAN eraiki zuenean. Bertsolari-ek izan duten eta duten garran-

tziaren adierazgarri izan zen joan den ekainaren 6an Donostiako Victoria Eugenia 90. urteurrenaren karira burututako bertso saioa. Andoni Egaña, Xabier Paya, Iñaki Murua, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Uxue Alberdi aritu ziren saioan, guztiak ARGIAko kolaboratzaileak.

Horietako batzuk sagardotegian izan ziren astekariko beste hainbat kolaboratzailearen artean. Azken urteetan ARGIAk kolaboratzaileak sagardotegira gonbidatzen baititu haien lana eskertzeko.

Badira, ordea, astekarian idatzi arren, egileen zerrendan ez daudenak. Arrazoiak arrazoi, 90 urtetan sinatu gabeko testu asko pilatu dira ARGIAren orrialdeetan. Horiek ez dute sekula sagardorik edango ARGIAren kontura. Baina haiei esker ere lortu du ARGIAk 90 urte betetzea. ■

www.argia.com/argia-90
helbidean, urteurrenaren kanal berezia.



ARGIAren 2.000. zenbakiaren alea. 2005eko uztailaren 10a.



Funcor nekazaritzarako makinien iragarkia. 1963ko ekainaren 9a.

BIZIRIK BEHAR GENUEN

- Haizak txo! Tuteratik deitzen diat... Gladysi tiro bat jo diote.
- Zauritu asko izan al da? Nola izan da dena? Haizak, zer moduz zegok Gladys?
- Gladys?... Gladys hila zegok... buruan jo dio tiroak.
Gladys nire laguna hila. Orain dela ordu bete Gladys hil dute. Guardia Zibilak hil du Gladys.

Egia hauzoko zure lagunak
1979ko ekainaren 10